Horrekin batera, gainerako zazpi (7) lehiaketa espezifikoen deialdiak egin dira, 2015ean argitaratu ziren oinarri orokorretan ezarritakoa betetzeko. Agindua, 2016ko maiatzaren 24koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, I-A, I-B, II-A, II-B, II-C eta III-A berariazko osagarria duten mailako lanpostuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomiadunetako karrerako funtzionarioentzat gordetakoak, betetzeko lehiaketarako deialdia eta berariazko oinarriak onartzen dituena.

*Se han convocado los 7 concursos específicos restantes para completar lo comprometido en las bases generales publicadas en 2015. Orden de 24 de mayo de 2016, del Consejero de Administración Pública y Justicia, por la que se aprueban la convocatoria y las bases específicas del concurso para la provisión de puestos de trabajo de niveles de complemento específico I-A, I-B, II-A, II-B, II-C y III-A reservados a personal funcionario de carrera de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos:*

Jakintza-arloa: arlo juridikoa.

Jakintza-arloa: industria eta energia.

Jakintza-arloa: estatistika.

Jakintza-arloa: ingurumena.

Jakintza-arloa: hezkuntza eta zientzia.

Jakintza-arloa: euskara.

Jakintza-arloa: kultura-ondarea.

*Área de conocimiento: Área jurídica.*

*Área de conocimiento Industria y Energía.*

*Área de conocimiento Estadística.*

*Área de conocimiento Medio Ambiente.*

*Área de conocimiento Educación y Ciencia.*

*Área de conocimiento Euskara.*

*Área de conocimiento Patrimonio Cultural.*

III-B eta IV-C berariazko osagarria duten mailako lanpostuak betetzeko lehiaketaren oinarri orokorrak izapidetu dira. Lehiaketa 2017an egingo da.

*Se han tramitado las Bases Generales del Concurso para la provisión de puestos de trabajo de niveles de complemento específico del III-B y el IV-C, que será convocado en 2017.*

Meritu eta titulazioko zerrenda birgaituak egin dira, hurrengo lekualdatze-lehiaketako merituak sailkatzeko eta balioesteko. Lehiaketaren epaimahaikideek kontsultatzeko eskuliburua osatu da, merituak eta hautagaiek egiaztatutako prestakuntza balioesteko.

*Se han elaborado listados depurados de méritos y titulaciones para la clasificación y valoración de méritos del próximo Concurso de Traslados. Se ha elaborado el manual de consulta de los tribunales del Concurso para la valoración de los méritos y la formación acreditada por los candidatos.*

Hezkuntza Saila, IVAP eta Unibasq lankidetzan hasi dira. Horren xedea da irizpide bateratuak eta publikoak ezartzea poltsen hautaketa-prozesuetan eta etorkizuneko EPEetan (enplegu publikoko eskaintza) herritarrek egiaztatutako titulazioen egokitasuna xedatzean, edukiaren eta mailaren arabera.

*Se ha iniciado una colaboración con el Departamento de Educación, IVAP, y UNIBASQ para el establecimiento de criterios conjuntos y públicos a la hora de determinar la pertinencia, por contenido y nivel, de las titulaciones acreditadas por ciudadanos en procesos selectivos de bolsas y futuras OPE´s.*

Lekualdatze-lehiaketako 16 epaimahairen aholku-lanak hasi dira, eta txosten hau idazteko egunean, dagoeneko sei (6) amaitu dira.

*Se han iniciado los trabajos de asesoramiento de 16 tribunales de Concurso de Traslados de los cuales se han finalizado, a la fecha de este escrito, 6.*

## 7. EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOKO LANGILEAK PRESTATZEKO ETA BIRZIKLATZEKO PROZEDURA.

## 7. PROCEDIMIENTO DE FORMACIÓN Y RECICLAJE DEL PERSONAL AL SERVICIO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO.

Funtzio Publikoko Zuzendaritzari dagokionez, lanpostu guztien prestakuntza-curriculumak mantendu dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko lanpostuen prestakuntzaren diseinuaren euskarria izango den datu-base bati eustearren.

*En lo que a la Dirección de Función Pública se refiere se ha procedido al mantenimiento de los currículos de formación de todos los puestos de trabajo a efectos de mantener una base de datos que de soporte al diseño de la formación de los puestos de trabajo en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.*

**8. ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN ARAUBIDE EKONOMIKOA ETA JURIDIKOA KUDEATZEA, ETA, OROBAT, FUNTZIO PUBLIKOAREN ARLOKO XEDAPENEN ETA AKORDIOEN JARRAIPENA ETA KONTROLA EGITEA.**

Onartu da azaroaren 2ko 3/2016 Instrukzioa, antzinatasunaren zioz 2014. eta 2015. urteetako baimen-egun gehiago hartzeari buruzkoa, epaia betearazteko.

Funtzio Publikoko Zuzendaritzak 33 txosten egin ditu, enplegatu publikoen erregimen juridikoari buruzko zenbait gairen eta hainbat proposamen arauemaileren gainean.

Funtzio Publikoko sailburuordearen 42 ebazpen eman dira; eta Funtzio Publikoko zuzendariaren, 193. Horrez gain, hainbat erreklamazio eta errekurtso ere erantzun dira.

Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legera egokitutako kargu publikodunen erregistro-aplikazioaren mantentze-lanak eta eguneratzea.

Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearekin bat etorrita, Funtzio Publikoko Zuzendaritzari dagozkion betebeharrak bete dira, Euskal Autonomia Erkidegoko kargu publikodunen katalogoa espresuki onetsiz, legea aplikatzetik eratorritako betebeharrak banaka kudeatuz eta planteatu diren kontsultak ebatziz (49/2016 Dekretua, martxoaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kargu publikodunen katalogo eguneratua onartzen duena).

Euskal Autonomia Erkidegoko eta beraren sektore publikoko kargu publikodunen Etika eta Jokabide Kodearen testu bategina onartu da.

1/2016 Instrukzioa, ekainaren 9koa, Funtzio Publikoko sailburuordearena, 2016ko abenduko aparteko ordainsaria aldez aurretik (2016ko uztaileko lehenengo egunetan) ordaintzeko irizpideei buruzkoa; Euskal Autonomia Erkidegoko 2016ko ekitaldirako aurrekontu orokorrak onesten dituen 2015eko abenduaren 23ko 9/2015 Legearen 20. artikulua aplikatzeko.

29/2016 Ebazpena, 2016ko ekainaren 10ekoa, Funtzio Publikoko sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko langile publikoen nominei buruzko instrukzioak ematen dituena eta 2016. urterako haien lansarien zenbatekoak eguneratzen dituena, Euskal Autonomia Erkidegoko 2016. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 9/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

Ordainsari-sistemaren alderdi hauek landu ditu Funtzio Publikoko Zuzendaritzak:

- Administrazio Orokorreko, Hezkuntzako, Justiziako eta Segurtasuneko kolektiboen hileko nominaren kudeaketa.
- Langileen ordainsarien bilakaerari eta ebaluazioari buruzko txostenak prestatzea.

**8. GESTIÓN DE RÉGIMEN ECONÓMICO Y JURÍDICO DEL PERSONAL AL SERVICIO DE LA ADMINISTRACIÓN, ASÍ COMO EL SEGUIMIENTO Y CONTROL DE DISPOSICIONES Y ACUERDOS EN MATERIA DE FUNCIÓN PÚBLICA.**

*Aprobación de la Instrucción nº 3/2016, de 2 de noviembre, sobre disfrute de días adicionales por antigüedad de los años 2014 y 2015, en ejecución de sentencia.*

*33 Informes realizados por la Dirección de Función Pública sobre diversos temas concernientes al régimen jurídico del personal empleado público y sobre distintas propuestas normativas.*

*Emisión de 42 resoluciones del Viceconsejero de Función Pública y 193 resoluciones del Director de Función Pública, dando contestación a diversas reclamaciones y recursos.*

*Mantenimiento y actualización de la aplicación de Registro de Cargos Públicos, adaptado a la Ley 1/2014, de 26 de junio, Reguladora del Código de Conducta de los Conflictos de Intereses de Cargos Públicos.*

*Cumplimiento de las obligaciones que a la Dirección de Función Pública corresponden en aplicación de la Ley 1/2014, de 26 de junio, Reguladora del Código de Conducta de los conflictos de intereses Cargos Públicos, procediendo a aprobar el Catálogo de Cargos Públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma y gestionando de forma individualizada las obligaciones derivadas de la aplicación de la Ley y resolviendo las consultas que se han planteado (Decreto 49/2016, de 22 de marzo, por el que se aprueba el catálogo actualizado de cargos públicos en el Comunidad Autónoma del País Vasco).*

*Aprobación del Texto Refundido del Código Ético y de Conducta de los cargos públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y su sector público.*

*Instrucción nº 1/2016, de 9 de junio, del Viceconsejero de Función Pública sobre criterios para el abono anticipado de la paga extraordinaria de diciembre de 2016 en los primeros días de julio de 2016, en aplicación del artículo 20 de la Ley 9/2015, de 23 de diciembre de 2015, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2016.*

*Resolución nº 29/2016, de 10 de junio de 2016, del Viceconsejero de Función Pública, por la que se dictan instrucciones en relación con las nóminas del personal empleado público de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se actualizan las cuantías de sus retribuciones para el año 2016, conforme a lo previsto en la Ley 9/2015, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2016.*

*En cuanto al sistema de retribuciones, la Dirección de Función Pública ha desarrollado los siguientes aspectos:*

- *Gestión de la nómina mensual de los colectivos de Administración General, Educación, Justicia y Seguridad.*
- *Elaboración de informes relativos a la evolución y evaluación de las retribuciones del personal.*

Onartu da 156/2016 Dekretua, azaroaren 15ekoa, kargu publikodunen betebeharrei eta eskubideei buruzkoa, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea garatzen duena.

Kargu publikodunen betebeharren eta eskubideen izapideak egiteko prozedura elektronikoak berriz diseinatzea eta ezartzea eta Kargu Publikodunen Erregistroa egiteko aplikazioa mantentzea eta eguneratzea, langileak kudeatzeko sisteman bateratuan (EIZU) txertatu ahal izateko. Hori guztia, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean ezarritakoarekin bat egin da.

Komunikazioak:

1 eta 3/2016, lehiaketetan eskaini diren lanpostuak betetzeko zerbitzu-eginkizunak izapidetze aldera.

2/2016, zerbitzu-eginkizunetako bitarteko funtzionario bihurtzeko eskatu duten Lanbideko aldi baterako langile lan-kontratudunen parte-hartzeari buruzkoa.

Sexu-delitugileen Erregistroaren kudeaketa: 2/2016 Instrukzioa, 2016ko ekainaren 14koa, Funtzio Publikoko zuzendariarena, urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak, Adin Txikikoen Babes Juridikoari buruzkoak, 13.5 artikuluan adin txikikoekin ohiko harremanak eduki behar dituzten langileei ezartzen dien eskakizunari buruzkoa.

Txostenak:

Bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta hara iristeko hautaketa-prozesuari buruzko txostena.

Hezkuntzako ikuskarien estatuko lehiaketaren deialdiari buruzko txostena.

Unibertsitateaz kanpoko irakasleen kidegoan sartzeko estatu-lehiaketaren deialdiari buruzko txostena.

Ertzaintzaren oinarrizko eskalako agente kategorian sartzeko hautaketa-prozesuari buruzko txostena.

Osasun Sailak eskatuta, akordio arautzailearen 55. artikuluaren interpretazioari buruzko txostena; zehazki, zerbitzu-eginkizunetan parte hartu ahal izateko titulazioari dagokionez.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak eskatuta, zerbitzu berezien egoera administratiboan lanpostua erreserbatzeari buruzko txostena.

*Aprobación del Decreto 156/2016, de 15 de noviembre, sobre obligaciones y derechos del personal cargo público, en desarrollo de la Ley 1/2014, de 26 de junio, Reguladora del Código de Conducta de los conflictos de intereses de Cargos Públicos.*

*Rediseño e implantación de los procedimientos electrónicos para la tramitación de las obligaciones y derechos del personal cargo público y mantenimiento y actualización de la aplicación de Registro de Cargos Públicos para su integración en el sistema integral de gestión de personal (EIZU), todo ello adaptado a la Ley 1/2014, de 26 de junio, Reguladora del Código de Conducta de los conflictos de intereses de Cargos Públicos.*

*Comunicaciones:*

*1 y 3/2016 de tramitación de comisiones de servicio para la provisión de plazas ofertadas en concursos.*

*2/2016, sobre la participación del personal laboral temporal de Lanbide que ha solicitado su conversión a personal funcionario interino en comisiones de servicio.*

*Gestión del Registro de Delincuentes sexuales: Instrucción 2/2016, de 14 de junio de 2016, del Director de Función Pública, relativa a la exigencia establecida en el artículo 13.5 de la Ley Orgánica 1/1996, de 15 de enero, de Protección Jurídica del Menor, al personal en puestos con contacto habitual con menores.*

*Informes:*

*Informe relativo al proceso selectivo para el ingreso y acceso al cuerpo de profesores y profesoras de enseñanza secundaria.*

*Informe relativo a la convocatoria de concurso estatal de Inspectores de Educación.*

*Informe relativo a la convocatoria de concurso estatal del personal funcionario de los cuerpos docentes no universitarios.*

*Informe relativo al proceso selectivo para el ingreso en la categoría de agente de la escala básica de la Ertzaintza.*

*Informe relativo a la interpretación del artículo 55 del Acuerdo Regulador en cuanto a la exigencia de titulación para poder participar en las comisiones de servicio, solicitado por el Departamento de Salud.*

*Informe relativo a la reserva de puesto en la situación administrativa de servicios especiales solicitado por el Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad.*

## 9. ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, ERAKUNDE AUTONOMOEN ETA SOZIETATE PUBLIKOEN ZERBITZUPEKO LANGILEEN LAN-BALDINTZAK ERREGULATZEA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Negoziazio Mahai Orokorrak bilera bat egin du, langileen

## 9. REGULACIÓN DE LAS CONDICIONES DE TRABAJO DEL PERSONAL ADSCRITO A LA ADMINISTRACIÓN GENERAL, ORGANISMOS AUTÓNOMOS Y SOCIEDADES PÚBLICAS.

*Se ha celebrado una reunión de la Mesa General de negociación de la Administración de la Comunidad*

baldintzak lantzeko: zehazki, antzinatasunaren arabera langileei dagozkien baimen-egunak eztabaidatzeko.

Administrazio Orokorreko langileen negoziazioko mahai sektorialak 10 bilera egin ditu. Bileretan honako gai hauek jorratu dituzte, besteak beste: LPZren aldaketen gaineko espedienteak, lanaldiei eta ordutegiei buruzko zirkularrak, enplegatu publikoen nominei buruzko instrukzioa, zerbitzu-eginkizunen araudiaren aldaketa eta Lanbideko langile lan-kontratudunak funtzionario bihurtzeko prozesuen oinarri orokorrak.

EAEko Administrazio Orokorrak emakumeen eta gizonen berdintasunerako lehen plana eratzeko lan-egitasmoari jarraituz, batzorde teknikoak 10 bilera egin ditu 2016an. Lanari amaiera emateko, dokumentua egin dute, eta batzordekideek aho batez onartu dute. Dokumentua negoziazio-mahaietan eztabaidatu eta onartu zen, eta Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak 2016ko irailaren 6ko bileran onartu zuen.

Bere eskumenak baliatuz, Zuzendaritzak 14 txosten egin ditu, sozietate publikoetako eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako langileen hitzarmenei eta soldaten berrikuspenei buruz.

Akordioak/hitzarmenak interpretatzea eta aplikatzea: Akordioak eta hitzarmenak koordinatzeko nahiz bateratzeko funtzioan, idatziz nahiz ahoz sailek egin dizkiguten galderei erantzun diegu.

Halaber, telelan modalitatean zerbitzuak emateko eskaintzak izapidetu dira 2016ko ekitaldian (168 eskaintza izan dira). Zerbitzu horretarako deialdia Funtzio Publikoko sailburuordearen 2016ko apirilaren 8ko ebazpenaren bidez egin zen.

*Autónoma para tratar de las condiciones de trabajo del personal y en concreto el reconocimiento de los días de permiso por antigüedad.*

*Se han celebrado 10 reuniones de la mesa sectorial de negociación del personal de la Administración General en las que entre otros, se han tratado los siguientes temas: expedientes de modificación de RPT, circular de jornada y horarios, instrucción sobre nóminas del personal empleado público, modificación de la normativa de comisiones de servicios y las bases generales de los procesos de funcionarización del personal laboral de Lanbide.*

*Siguiendo el Plan de trabajo para para la elaboración del primer Plan para la Igualdad de mujeres y hombres de la Administración general de la CAE, durante el año 2016 la Comisión Técnica se ha reunido en 10 ocasiones habiendo culminado su trabajo con el documento consensuado por unanimidad de las personas integrantes de la Comisión. Tal documento se debatió y acordó en las mesas de negociación siendo aprobado por el Consejo de Gobierno Vasco en reunión celebrada con fecha 6 de septiembre de 2016.*

*Atendiendo a las competencias de la Dirección se ha emitido 14 informes preceptivos sobre convenios y revisiones salariales suscritos para personal de las sociedades públicas y entes públicos de derecho privado.*

*Interpretación y aplicación de acuerdos/convenios: Dentro de la función de coordinación y unificación de Acuerdos/Convenios se han atendido las consultas de los distintos departamentos tanto de forma verbal como escrita.*

*Asimismo durante el ejercicio 2016 se han tramitado las solicitudes de prestación de servicios en la modalidad de teletrabajo convocada mediante Resolución del Viceconsejero de Función Pública de fecha 8 de abril de 2016 (168 solicitudes).*

## 10. ZERBITZU OROKORRAK EMATEA.

Sail edo erakunde autonomoei eskaintzekoak diren zerbitzu orokorrak hobetzeko prozesuari dagokionez, akordioetan eta hitzarmen kolektiboetan ezarritako gizarte-laguntzak kudeatzeko irizpideak bateratze aldera eta, orobat, egin beharreko administrazioko prozedurak bizkorrago egite aldera, honako jarduera hauek nabarmendu behar dira:

Lakuako egoitza nagusiko langileei jantoki-zerbitzua ematea eta zerbitzuaren funtzionamenduarekin lotutako kontratuen kudeaketa administratiboa eta kontabilitatekoa. Era berean, janaria etxetik ekartzen duten langileek erabiltzen duten jantokia ere kudeatu da eta zerbitzuaren eskaintza handitu da.

Nomina-aurrerapeneko espedienteak izapidetu, ebatzi eta justifikatu dira, eta haien itzulketaren jarraipena egin da. Gainera, sortzen diren gertakari guztien kontabilitate-kudeaketa egin da horiek amortizatzeko.

2015eko ekitaldiko Gizarte Funtsaren banaketa arautzeko araua onartzea, eta deialdi osoa kudeatzea.

## 10. PRESTACIÓN DE SERVICIOS GENERALES.

*En el proceso de mejora de la prestación de servicios comunes a los Departamentos y Organismos Autónomos, al objeto de unificar criterios en la gestión de las atenciones sociales previstas en Acuerdos y Convenios Colectivos, así como agilizar los procedimientos administrativos en los que se interviene, caben destacar las siguientes actuaciones:*

*Prestación del servicio de comedor al personal con destino en la sede central de Lakua y gestión administrativa y contable de los contratos asociados al funcionamiento del servicio. Asimismo se ha gestionado el comedor utilizado por el personal que trae de fuera su propia comida y se ha ampliado la oferta del servicio.*

*Tramitación, resolución y justificación de los expedientes de adelantos de nómina y seguimiento del reintegro de los mismos, así como, gestión contable de todas las incidencias que se producen para su amortización.*

*Aprobación de la norma reguladora de la distribución del Fondo Social correspondiente al ejercicio 2015 y gestión íntegra de la convocatoria.*

Eskubide pasiboren bat aitortu den espedienteetako dokumentuak urtero eguneratzea (50 espediente aitortu dira, 13/87 eta 67 Dekretuen eta Eusko Jaurlaritzaren 7/81 Legearen arabera).

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren egoitza diren erakinetako sartu-irtenak kudeatzeko eta fitxatzeko txartelak egitea.

Enplegatuaren atariko informazioa mantentzea eta eguneratzea, Lan Harremaneko Zuzendaritzaren eskumeneko gaiei dagokienez.

*Actualización anual de la documentación de los expedientes en que se ha reconocido algún derecho pasivo (50.expedientes reconocidos conforme al Decreto 13/87 y 67 al amparo de la Ley 7/81, de Gobierno).*

*Elaboración de tarjetas de fichar y gestión de acceso a los edificios sede de la Administración de la Comunidad Autónoma.*

*Mantenimiento y actualización de la información del Portal del Empleado en cuestiones competencia de la Dirección de Relaciones Laborales.*

## 11. LANEKO OSASUNA ETA LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA.

Aurreikusitako arrisku-ebaluazioen kopurua gainditu da, 70 lanpostu ebaluatu direlako.

Arrisku psikosozialen ebaluazioei buruzko planak bete eta gainditu dira, 200 lanpostu ebaluatu direlako.

Prebentzio-zerbitzuko arlo teknikoak lan-osasunari buruzko 147 espedienteri erantzuna eman die, langileen eskaeren arabera.

Lanbiden 14 larrialdietako plan egin dira, hots, ezarritakoak baino sei (6) gehiago. Horrez gain, 3 larrialdietako plan berrikusi dira. Halaber, plangintzari jarraikiz, alarma- eta ebakuazio-ekipoen zerrendak berrikusi dira. Ebakuazio-simulakroei dagokienez, aurrez ezarritakoak baino 3 gehiago egin dira: guztira, 49 simulakro.

EAEko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoetako emakumeen eta gizonen berdintasunerako lehen planaren aurretiko diagnosiaren lan-segurtasunaren eta -osasunaren atala egin denez, pertsonen arteko gatazkak ebazteko prozeduraren berrikuspena geroratu da.

Egin diren mediku-azterketen eta kontsulten kopurua 1.080 da, eta kontsulten kopurua 4.115 da; beraz, datu biak eta aurreikusitakoak oso antzekoak dira.

Segurtasun- eta osasun-batzordeak hiru (3) bilera egin ditu.

Interneteko sarearen euskarria kudeatzeko arloarekin lau (4) bilera egin dira, Jakina guneko Lan Segurtasunari eta Osasunari buruzko atala elikatzeko. Hasieran ezarritakoak baino bi gehiago egin dira, eta gai horri buruzko dokumentu bat egin da.

Telelan modalitatean lan egin ahal izateko aurrez egin behar den nahitaezko ikastaroko ikasleen lanaren berrikuspenari dagokionez, hasieran ezarritako pertsonen kopurua baino pertsona gutxiagoren lana berrikusi da, ikastaroko langileen kopurua ere txikiagoa izan delako. Arriskuen hasierako ebaluazioak moldatzeko egin diren arriskuen ebaluazioen kopurua, ordea, aurreikusitakoa baino handiagoa izan da: 6. Telelan modalitateko lanpostuak antolatzeko/berrikusteko txostenen kopurua ere handiagoa izan da: 12, zehatz-mehatz.

## *11. SALUD LABORAL-PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES.*

*Se ha superado el número de evaluaciones de riesgos previstas, ya que se han evaluado 70 puestos de trabajo.*

*Se ha cumplido lo planificado con relación a las evaluaciones de riesgos psicosociales en Lanbide, puesto que se han evaluado 200 puestos de trabajo.*

*El área técnica del servicio de prevención ha dado solución a 147 de expedientes de salud laboral, en consonancia con la demanda de las y los trabajadores.*

*Se han realizado 14 planes de emergencia en Lanbide, 6 más de los previstos y se han revisado 3 planes de emergencia. Asimismo, se han revisado los listados de los equipos de alarma y evacuación conforme a lo planificado y en cuanto a los simulacros de evacuación se han realizado 3 más de los establecidos previamente, llegando a 49 simulacros.*

*Se ha pospuesto la revisión del procedimiento para la resolución de conflictos interpersonales, al abordarse la elaboración del apartado de seguridad y salud laboral del diagnóstico previo del I Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Admón. General y OO.AA.*

*El número de reconocimientos médicos y de consultas ha sido 1.080 y el nº de consultas ha sido de 4115, datos cercanos a los previstos.*

*En cuanto a las reuniones del comité de seguridad y salud se han realizado 3 reuniones.*

*Se han celebrado 4 reuniones con el área de soporte WEB para alimentar el apartado de Seguridad y Salud Laboral de Jakina, dos más de las planificadas inicialmente y se ha elaborado un documento relativo a la materia.*

*En cuanto a la revisión del trabajo del alumnado del curso previo y obligatorio para poder tele trabajar, ha de indicarse que el nº de personas revisadas ha sido inferior al previsto, puesto que el nº de alumnos del curso ha sido menor. En cambio el nº de evaluaciones de riesgos realizadas para adaptar las evaluaciones de riesgos iniciales ha sido de 6, un nº mayor que el planificado y el nº de informes emitidos para organizar/revisar los puestos de teletrabajo ha sido también superior, concretamente de 12.*

**PROGRAMA**

1215 BERRIKUNTZA ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA

**ARDURADUNA**

02 HERRI-ADMINISTRAZIOA ETA JUSTIZIA

FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEA

***PROGRAMA***

*1215 INNOVACIÓN Y ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA*

***RESPONSABLE***

*02 ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y JUSTICIA*

*VICECONSEJERO DE FUNCIÓN PÚBLICA*

## HELBURUA

1. HERRI ADMINISTRAZIOAN GARDENTASUNA, PARTE-HARTZEA ETA LANKIDETZA SUSTATZEA.

2. HAINBAT BIDE ERABILIZ (AURREZ AURREKOA, TELEFONOA, INTERNET...) ESKURA DAITEZKEEN KALITATEZKO ZERBITZUEN ESKAINTZA GARATZEA.

3. ADMINISTRAZIO-KUDEAKETAN EFIZIENTZIA HOBETZEA, ERAKUNDEA EGOKITUZ, KUDEAKETA-EREDU BERRIAK EZARRIZ ETA TEKNOLOGIA ADIMENEZ ERABILIZ.

4. ADMINISTRAZIOAN BERRIKUNTZA SUSTATZEA, HERRITARRAK ETA PROFESIONALAK SARTUZ POLITIKA ETA ZERBITZU PUBLIKOEN DISEINUAN, KUDEAKETAN ETA EBALUAZIOAN.

## *OBJETIVO*

*1. PROMOVER LA TRANSPARENCIA, LA PARTICIPACIÓN Y LA COLABORACIÓN EN LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA.*

*2. DESARROLLAR UNA OFERTA DE SERVICIOS DE CALIDAD Y ACCESIBLE POR DIFERENTES CANALES (PRESENCIAL, TELÉFONO, INTERNET).*

*3. MEJORAR LA EFICIENCIA EN LA GESTIÓN ADMINISTRATIVA, ADECUANDO LA ORGANIZACIÓN, IMPLANTANDO NUEVOS MODELOS DE GESTIÓN Y REALIZANDO UN USO INTELIGENTE DE LA TECNOLOGÍA.*

*4. PROMOVER LA INNOVACIÓN EN LA ADMINISTRACIÓN INVOLUCRANDO A LA CIUDADANÍA Y A LOS PROFESIONALES EN EL DISEÑO, LA GESTIÓN Y LA EVALUACIÓN DE LAS POLÍTICAS Y DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS.*

## BETETZE MAILA

**1. HERRI ADMINISTRAZIOAN GARDENTASUNA, PARTE-HARTZEA ETA LANKIDETZA SUSTATZEA.**

2016an, gehieneko puntuatzea lortu dugu autonomia-erkidegoen gardentasun-indizean, 100 puntu 100etik, eta gehieneko maila kualitatiboa lortu dugu ebaluazio kualitatiboan, A maila. Informazioaren argitalpenak kalitate-maila altukoak dira, erraz eta aldizkakotasunez eskura daitezke, deskripzio-maila egokiarekin eta, hautaturiko adierazleen arabera, formatu berrerabilgarriak erabiltzen dira gehienetan. Ebaluazio honen exijentzia-maila igo denez, nabarmen hobetu da GARDENAn honako hauei dagokienez argitaraturiko informazioaren kalitatea:

- GARDENAtik datuetarako irispide zuzena (kontratuak, diru-laguntzak, dokumentu garrantzitsuak, LZ....), on-lineko informazioa eguneratuarekin.

- Informazioa ulertzen laguntzen duten bistaratze grafikoak.

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

***1. PROMOVER LA TRANSPARENCIA, LA PARTICIPACIÓN Y LA COLABORACIÓN EN LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA.***

*En 2016 hemos obtenido la máxima puntuación en el índice de transparencia de Comunidades Autónomas, con 100 puntos sobre 100 y en la evaluación cualitativa se ha alcanzado el máximo nivel cualitativo A: Se publica la información con un muy alto nivel de calidad, de forma fácilmente accesible, con un carácter periódico y un adecuado carácter descriptivo, siendo datos publicados en formatos reutilizables en la generalidad de los indicadores seleccionados. Como consecuencia del incremento del nivel de exigencia de esta evaluación se ha mejorado notablemente la calidad de la información publicada en Gardena, en cuanto a:*

- *Acceso directo desde GARDENA a las bases de datos (de contratos, de subvenciones, de documentos de relevancia jurídica, RPT…) con actualización de la información on line.*

- *Visualizaciones gráficas que hacen más comprensible la información.*

- Informazioa eguneratzeko aldi baterako baseen kontsignazioa.
- Orokortu egin da formatu berrerabilgarrietan argitaratzea.

Informazioa begiratzeko eskubidearen eskaeren kopurua:

Guztira, 60 eskaera egin dira. 45 kasutan, erabateko irispidea eman zen; 6 ez ziren onartu, eskumenik ez izateagatik edo informazio osagarria izateagatik edo bikoiztua egoteagatik; beste 1, eskatzaileak atzera egiteagatik; 1 ukatu egin zen; 1 organo eskudunari igorri zitzaion; 3 baliogabeak ziren, bikoiztasuna gertatzen zelako edo ez zutelako loturarik informaziorako irispidearekin, eta 3 ebatzi gabe daude. Birjartzeko errekurtso 1 jaso zen. Erantzuteko batezbesteko denbora 20 egunekoa izan da.

2016an, Informazio Publikoa Begiratzeko Euskadiko Batzordea sortu da irailaren 13ko 128/2016 Dekretuaren bidez. Informazio publikoa begiratzeko eskubidearen eskaerei arreta ematen dien organoa da.

- *Consignación de las bases temporales de actualización de la información*
- *Generalización de la publicación en formatos reutilizables.*

*Número de solicitudes de derecho de acceso a la información recibidas:*

*En total han sido 60 solicitudes. En 45 se dio acceso total a la información, 6 fueron inadmitidas por incompetencia, tratarse de información auxiliar o duplicidad, 1 desistimiento del solicitante, 1 denegada, 1 remitida al órgano competente, 3 nulas por duplicidad o no tratarse de acceso a la información pública y 3 se encuentran pendientes de resolver. Se recibió 1 recurso de reposición. El tiempo medio de respuesta ha sido de 20 días*

*En 2016 se ha creado mediante Decreto 128/2016 de 13 de septiembre la Comisión Vasca de Acceso a la Información Pública. Se trata del órgano que atiende las reclamaciones de derecho de acceso a la información pública.*

## 2. HAINBAT BIDE ERABILIZ (AURREZ AURREKOA, TELEFONOA, INTERNET...) ESKURA DAITEZKEEN KALITATEZKO ZERBITZUEN ESKAINTZA GARATZEA.

2016an, aldatu egin dira sailetako webak, guztien informazioak egitura bera izan dezan. Sailetako web-atariak egokitu dira, herritarrentzat berdinak eta Eusko Jaurlaritzaren bereizgarriak izan daitezen. 2016an, hiru sail hauetako orrialde guztiak (azpiatariak eta barneko orrialdeak) migratu eta argitaratu dira:

- Lehendakaritza.
- Gobernantza Publikoa eta Autogobernua.
- Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa .

•2016an, orrialdeak migratu dira (azpiatariak eta barneko orrialdeak), eta hiru sail hauetako azken argitalpenak bakarrik falta dira:

- Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.
- Ogasuna eta Ekonomia.
- Kultura eta Hizkuntza Politika.

2016an, lau sail hauetako orrialdeak migrazio-prozesuan daude (azpiatariak eta barneko orrialdeak), eta horien argitalpena 2017aren maiatzerako dago aurreikusita:

- Enplegua eta Gizarte Gaiak.
- Lana eta Justizia.
- Segurtasuna.
- Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza.

2016an, Osasun Saileko eta Hezkuntza Saileko orrialdeak migrazio-prozesuan daude (azpiatariak eta barneko orrialdeak).

## *2. DESARROLLAR UNA OFERTA DE SERVICIOS DE CALIDAD Y ACCESIBLE POR DIFERENTES CANALES (PRESENCIAL, TELÉFONO, INTERNET).*

*Durante 2016 se han modificado las webs departamentales para que todas ofrezcan la información con la misma estructura. Se han adaptado las homes de las webs departamentales de manera que sean homogéneas e identificativas del Gobierno para la ciudadanía. Durante 2016 se han migrado y publicado todas las páginas (subhomes y páginas interiores) de 3 departamentos:*

- *Lehendakaritza.*
- *Gobernanza Pública y Autogobierno.*
- *Turismo, Comercio y Consumo .*

*Durante 2016 se han migrado las páginas (subhomes y páginas interiores) y tan solo queda pendiente la publicación final de 3 departamentos:*

- *Desarrollo Económico y Competitividad.*
- *Hacienda y Economía.*
- *Cultura y Política Lingüística.*

*Durante 2016 se ha iniciado y se encuentran en proceso de migración las páginas (subhomes y páginas interiores) de 4 departamentos, cuya publicación está prevista para mayo de 2017:*

- *Empleo y Políticas Sociales.*
- *Trabajo y Justicia.*
- *Seguridad.*
- *Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda.*

*Durante 2016 se ha iniciado y se encuentran en proceso de migración las páginas (subhomes y páginas interiores) de los departamentos de Salud y Educación.*

"Responsive web design" delakoa erabili da gailu mugikorretatik webera egindako sarrera-kopurua areagotu izanari erantzuteko. Euskadi.eus-eko 2016ko datu estatistikoei erreparatuta, ikusten da mugikor bidezko nabigazioa % 8 areagotu dela, eta mahaigaineko gailuen bidezkoa, berriz, % 8 jaitsi dela, 2015eko iraileko datuekin alderatuz gero.

2016an, webeko argitalpen-bermeen zerbitzua sartu da, erabiltzaileek honako hauek frogatu ahal izan ditzaten: momentu jakin batean zerbait argitaratuta zegoela, nola argitaratu zen, noiz arte, eta zein osagai erantsi zituen edota une jakin batean egoitza elektronikoan argitaratuta zegoen eduki osoa deskargatzeko aukera izateko. Zerbitzu elektronikoen eskuragarritasunari buruzko abisu teknikoak sartu dira.

Administrazio-prozeduren familia ezberdinen tramitazioan Administrazioak sortutako agirien estandarizazioari ekin zaio. Laguntzen, beken eta diru-laguntzen familiarekin hasi gara, hor sortzen baita jarduera gehien, eta, ziur aski, jarduera konplexuena. Dokumentu asko zeharkakoak dira, eta dauden moduan balioko dute –edo oso aldaketa gutxi beharko dituzte– beste prozedura-familia batzuetarako.

Tramitazio elektronikoko tresna komunen interfazeak eta literalak estandarizatu dira, eta estandarizatzen jarraitzen dugu, IVAPen laguntzarekin. Lan horrek hauek aztertzea eskatzen du: testuak, etiketak, komandoak, fitxak, mezuak, testuinguru-laguntzak..., bai hizkeraren aldetik (gaztelania eta euskara), bai erabilgarritasunaren aldetik (diseinua, erabiltzeko erraztasuna...), betiere erdigunean jarrita tresna elektroniko horiek erabiliko dituztenak, hots, herritarrak eta izapidegileak.

Zuzenean-Herritarrei Arreta emateko Zerbitzuak, 2016an, 903.238 arreta egin zituen guztira, eta, horietatik, 469.708 aurrez aurrekoak izan ziren, 416.579 telefono bidezkoak, 15.564 webaren bidezkoak eta 1.387 Telegram sare sozialaren bidezkoak.

**3. ADMINISTRAZIO-KUDEAKETAN EFIZIENTZIA HOBETZEA, ERAKUNDEA EGOKITUZ, KUDEAKETA-EREDU BERRIAK EZARRIZ ETA TEKNOLOGIA ADIMENEZ ERABILIZ.**

2016an, Tramitagune, Platea Tramitazioa, Dokusi, Platea Internet eta Zuzenean zerbitzu elektronikoen plataforma bateratuaren eboluzioan izandako aurrerapenak nabarmendu behar dira. Azpiegituren erabilgarritasuna, eskalagarritasuna eta errendimendua bermatzeko behar den eboluzioari eusteaz gain, hainbat hobekuntza ezarri dira funtzionaltasunaren eta erabilgarritasunaren arloan. Hala, funtsezko hobekuntzak sartu dituzte tresnen hizkuntza-normaltasunari eta estandarizazioari dagokienez.

Tramitagunen hainbat erlaitz sartu dira erregistroak, ziurtagiriak, baimenak eta erreklamazioak izapidetzeko, herritarrekin elkarreragina izateko, administrazio-jardueretarako eta barne prozesuetarako.

*Se ha utilizado "responsive web design" para dar respuesta al incremento de accesos a la web desde dispositivos móviles. Se observa en los datos estadísticos del 2016 de Euskadi.eus un crecimiento de la navegación mediante dispositivos móviles de un 8% y un descenso de los dispositivos de escritorio de un 8% comparando los datos de septiembre de 2015.*

*En 2016 se ha incorporado un servicio de garantías de publicación web que permita al usuario demostrar que en un momento dado algo estaba publicado, de qué manera, hasta cuando, y qué elementos adjuntos había, así como descargarse un contenido completo que estaba publicado en un momento determinado en sede electrónica. Se han incorporado avisos técnicos sobre la disponibilidad de servicios electrónicos.*

*Se ha trabajado en la estandarización de los documentos generados por la administración en la tramitación de las diferentes familias de procedimientos administrativos. Se ha empezado por la familia de ayudas, becas y subvenciones, por ser la que más actividad genera y probablemente la más compleja. Una parte importante de los documentos son transversales y servirán tal cual o con pocas modificaciones para otras familias de procedimientos.*

*Se han estandarizado y siguen estandarizándose los literales y las interfases de las herramientas comunes de tramitación electrónica, también con ayuda del IVAP. Este trabajo comprende analizar textos, etiquetas, comandos, pestañas, mensajes, ayudas contextuales… tanto desde el punto de vista del lenguaje (castellano y euskera) como de la usabilidad (diseño, facilidad de manejo…), poniendo el foco en el usuario (ciudadanía y tramitadores) que van a utilizar esas herramientas electrónicas.*

*El servicio de Atención Ciudadana - Zuzenean ha realizado en 2016 un total de 903.238 atenciones, de las que 469.708 han sido presenciales, 416.579 telefónicas, 15.564 a través de la web y 1.387 a través de la red social Telegram.*

***3. MEJORAR LA EFICIENCIA EN LA GESTIÓN ADMINISTRATIVA, ADECUANDO LA ORGANIZACIÓN, IMPLANTANDO NUEVOS MODELOS DE GESTIÓN Y REALIZANDO UN USO INTELIGENTE DE LA TECNOLOGÍA.***

*Durante 2016, hay que destacar los avances producidos en la evolución de la plataforma común de los servicios electrónicos, Tramitagune, Platea Tramitación, Dokusi, Platea Internet y Zuzenean. Además del mantenimiento evolutivo que garantiza la disponibilidad, escalabilidad y rendimiento de las infraestructuras, se han introducido mejoras de funcionalidad y usabilidad, incluyendo mejoras sustanciales en cuanto a la normalización y estandarización lingüística de las herramientas.*

*Se han incorporado a Tramitagune pestañas para la tramitación electrónica de Registros, Certificaciones, Autorizaciones, Reclamaciones, Interacción con la ciudadanía, Actuaciones administrativas y Procesos internos.*

Horrez gain, nabarmentzekoa da formularioen Toolkit-ak izandako eboluzioa, tresna horrek asko errazten baititu herritarren tramite elektronikoak, eta, gainera, aukera ematen die prozedurari buruzko informazio publikoa egiten den momentuan alegazioak egiteko egoitza elektronikoaren iragarki-taula elektronikoren bidez.

*También es reseñable la evolución del Toolkit de formularios, por el impacto que la herramienta tiene para facilitar la tramitación electrónica por parte de la ciudadanía, así como la posibilidad de que la ciudadanía remita alegaciones en el trámite de información pública de los procedimientos desde el tablón de anuncios electrónico en la sede electrónica.*

Bereziki aipatu behar da Tramitagune eta Platea Internet administrazio-prozedurak digitalizatzeko aurrerapenei esker, ezinbesteko tresnak eratu direla informazioaren argitalpenak automatizatzeko; izan ere, hala ezartzen du gardentasunaren eta informazio publikorako sarbidea izateko eskubidea ezartzeko legeak.

*Mención especial merece el hecho de que gracias al avance en la digitalización de procedimientos administrativos Tramitagune y Platea Internet se han constituido en herramientas clave para la automatización de la publicación de información a que obliga la Ley de transparencia y para la implantación del ejercicio del derecho de acceso a la información pública.*

2016an, Aurrerabide programa sustatze aldera, prestakuntza-ekintzen arloko saioak egin dira prestakuntza-ekintzen prozesuaren barruan, eta kudeaketa aurreratuko oinarrizko eredua ezarri da. 2016an, 28 zuzendaritzak hartu dute parte, eta, guztira, 186 parte-hartzaile egon dira.

*En 2016, dentro del impulso al programa Aurrerabide, se han realizado de sesiones de formación-acción dentro del proceso de formación-acción y acompañamiento en la implantación del modelo básico de gestión avanzada. En el año 2016 han participado 28 direcciones con un total de 186 participantes.*

Asebetetze-inkestak egin dira Aurrerabide proiektuan parte hartu dutenen artean, eta balorazio formal orokorra 7tik oso hurbil egon da (10etik). Benetako baloraziorako, elkarrizketa batzuk egin dira, baina ikerketa kualitatiboa egiteko dago.

*Los resultados de las encuestas de satisfacción realizadas entre los participantes en el proyecto Aurrerabide arrojan resultados de valoración formal global muy cerca del 7 sobre 10. La valoración real tras algunas entrevistas, pero sin la realización de un estudio cualitativo aún pendiente de realizar.*

Aurrerabide proiektuaren barruan, proiektuan lan egiteko tresnak (Txoko Aurrerabide aplikazioa) eta proiektuaren segimendua egiteko erremintak (laguntzaileen jarraipen-fitxak, parte-hartzaileen galdeketak, laguntzaileekin jarraipen-bilerak...) diseinatu dira.

*Dentro del proyecto Aurrerabide, se han diseñado instrumentos para trabajar en el proyecto (aplicación Txoko Aurrerabide) y herramientas para su seguimiento (fichas de seguimiento de facilitadores, encuestas a participantes, reuniones de seguimiento con facilitadores,…*

**4. ADMINISTRAZIOAN BERRIKUNTZA SUSTATZEA, HERRITARRAK ETA PROFESIONALAK SARTUZ POLITIKA ETA ZERBITZU PUBLIKOEN DISEINUAN, KUDEAKETAN ETA EBALUAZIOAN.**

***4. PROMOVER LA INNOVACIÓN EN LA ADMINISTRACIÓN INVOLUCRANDO A LA CIUDADANÍA Y A LOS PROFESIONALES EN EL DISEÑO, LA GESTIÓN Y LA EVALUACIÓN DE LAS POLÍTICAS Y DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS.***

2016an, Opendata Euskadiren bilakaerak aurrera egin du, eta datuen, formatuen eta ezarpenen eskaintza hobetu da. Urtarrilaren 1etik, 163 dataset berri sortu dira; beraz, 2015arekin alderatuz gero, % 40 areagotu dira. 2016ko abenduan, guztira, 2.646 datu-multzo zeuden Opendata Euskadin.

*En 2016 ha continuado la evolución de Opendata Euskadi, mejorando la oferta de datos, de formatos y de aplicaciones; Desde el 1 de enero se han creado 163 datasets nuevos, lo que supone un incremento del 40% respecto a 2015. En total, a diciembre de 2016, existen 2646 conjuntos de datos en opendata Euskadi.*

2016an, Bilboko Udalaren eta Gipuzkoako Aldundiaren datuak Open Data Euskadi katalogoan federatzeko proiektu bat jarri dugu abian. Datuen katalogoaren bilatzaile berri bat jarri dugu martxan, honako hobekuntza hauek eransten dituena: organismoaren arabera ere bilatzeko aukera, bilaketak irizpideak aldi berean konbinatuz egitea, testu librean bilatzeko hobekuntzak eta datu estatistikoak katalogoko gainerakoekin fusionatzea.

*Durante 2016 hemos iniciado un proyecto para federar los datos del Ayuntamiento de Bilbao y de la Diputación de Gipuzkoa en el catálogo de Open Data Euskadi. Hemos puesto en marcha un nuevo buscador del catálogo de datos que añade las siguientes mejoras: posibilidad de buscar también por organismo, realizar búsquedas combinando criterios simultáneamente, mejora en la búsqueda de texto libre y fusión de los datos estadísticos con el resto del catálogo.*

DACIMAk Emakunderi lankidetza eta aholkularitza eman dizkio, Berdintasunerako Legearen eraginaren ebaluazio partekatua egiteko proiektu pilotuaren prozesuan (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako).

*La DACIMA ha colaborado y asesorado a Emakunde en el proceso de evaluación participada del impacto de la ley de igualdad Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, como proyecto piloto.*

2016an, demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zurian jasotako konpromisoak zabaltzen jarraitu dugu.

*En 2016 hemos continuado desplegando los compromisos incluidos en el Libro Blanco de democracia y participación ciudadana.*

Proiektuak sustatu ditugu Eusko Jaurlaritzan (gauzatzen: Lurralde-antolamenduaren gidalerroak egitea; Berdintasun Legearen ebaluazioa partekatua; Elkarlan Zuzenbideari bultzada ematea; Herritarren zientziari bultzada ematea).

*Hemos impulsado proyectos en el Gobierno Vasco (en ejecución: Elaboración de directrices de ordenación del territorio; Evaluación participada de la Ley de igualdad; Impulso del derecho colaborativo; impulso a la Ciencia ciudadana).*

Elkarlan sarien bigarren edizioa deitu dugu, balio publikoa sortzen duten herritarren ekimenak saritzeko.

*Hemos convocado la segunda edición de los Premios Elkarlan a iniciativas ciudadanas de generación de valor público.*

Gida bat argitaratu dugu, herritarrek parte hartzeko prozesuak egin daitezen horrekin.

*Hemos editado una Guía para la ejecución de procesos de participación ciudadana.*

Prozesu parte-hartzaileak ebaluatzeko eredua egin dugu.

*Hemos elaborado un modelo de evaluación de procesos participativos.*

| **PROGRAMA** | ***PROGRAMA*** |
|---|---|
| 1217 ERAKUNDEEN HARREMANAK | *1217 RELACIONES INSTITUCIONALES* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 02 HERRI-ADMINISTRAZIOA ETA JUSTIZIA | *02 ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y JUSTICIA* |
| ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILBURUORDEA | *VICECONSEJERO DE RELACIONES INSTITUCIONALES* |

## HELBURUA

1. JAURLARITZAREN KONTSEILUKO JARDUERA ANTOLATZEA ETA PRESTATZEA.
2. EUSKO LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANAK EGOKIAK DIRELA BERMATZEA.
3. ARARTEKOAREKIKO HARREMANAK EGOKIAK DIRELA BERMATZEA.
4. EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN XEDAPENAK ETA EGINTZAK ARGITARATZEA.
5. TOKI-ADMINISTRAZIOAREN ARLOKO JARDUKETAK ZUZENTZEA ETA KOORDINATZEA.
6. EUSKADIKO UDAL-LEGEA.
7. AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK TOKI-ADMINISTRAZIOEKIN DITUEN HARREMANAK SENDOTZEA.
8. ELKARTEEI BURUZKO LEGEAN AGINDUTAKOA BETEARAZTEA.
9. FUNDAZIOEN ERREGISTROA KUDEATZEA ETA FUNDAZIOEN BABESLETZA GAUZATZEA.
10. TITULUDUN LANBIDEEI ETA PROFESIONALEN KIDE ANITZEKO ORGANOEI ETA KONTSEILUEI BURUZKO LEGEAN AGINDUTAKOA BETEARAZTEA.

## *OBJETIVO*

*1. ORDENAR Y PREPARAR LA ACTIVIDAD DEL CONSEJO DE GOBIERNO.*

*2. GARANTIZAR LA FLUIDEZ DE LAS RELACIONES CON EL PARLAMENTO.*

*3. GARANTIZAR LA FLUIDEZ DE LAS RELACIONES CON EL ARARTEKO.*

*4. PUBLICAR LAS DISPOSICIONES Y ACTOS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA.*

*5. COORDINACIÓN Y DIRECCIÓN DE LAS ACTUACIONES EN MATERIA DE ADMINISTRACIÓN LOCAL.*

*6. LEY MUNICIPAL DE EUSKADI.*

*7. POTENCIAR RELACIONES DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA CON LAS ADMINISTRACIONES LOCALES.*

*8. DAR CUMPLIMIENTO A LO PREVISTO EN LA LEY DE ASOCIACIONES.*

*9. GESTIONAR EL REGISTRO DE FUNDACIONES Y EJERCER EL PROTECTORADO DE FUNDACIONES.*

*10. DAR CUMPLIMIENTO A LO PREVISTO EN LA LEY DE EJERCICIO DE PROFESIONES TITULADAS Y DE COLEGIOS Y CONSEJOS PROFESIONALES.*

## BETETZE MAILA

### 1. JAURLARITZAREN KONTSEILUKO JARDUERA ANTOLATZEA ETA PRESTATZEA.

Helburu honen barruan jarduera hauek gauzatu dira:

Jaurlaritzako kide anitzeko organoen bilerekin loturiko jardunei dagokienez, Kontseilurako 47 gai-zerrenda prestatu dira, bakoitzari dagozkion aktekin batera. Halaber, (938) txostenak egin dira landutako gai batzuei buruz (1078, guztira). Era berean, Gobernu Kontseiluak onartutako gaiei buruzko 417 ziurtagiri egin dira, 50 gai izapidetu dira Eusko Legebiltzarrerako eta 465 agiri bidali dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarira.

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

### *1. ORDENAR Y PREPARAR LA ACTIVIDAD DEL CONSEJO DE GOBIERNO.*

*Dentro de este objetivo se han realizado las actividades siguientes:*

*Por lo que respecta a las actuaciones relacionadas con las sesiones de los órganos colegiados del Gobierno, se han elaborado 47 órdenes del día del Consejo de Gobierno, con sus Actas correspondientes, elaborando (938) informes sobre los asuntos tratados (en total 1078). Asimismo, se han expedido 417 certificaciones de los asuntos aprobados por el Consejo de Gobierno; se han tramitado al Parlamento Vasco 50 asuntos y se han remitido al Boletín Oficial del País Vasco 465 documentos.*

Halaber, 2016an datuak ezerezteko 16 espediente tramitatu dira.

*Asimismo, durante el año 2016 se han tramitado 16 expedientes de cancelación de datos.*

Obra txikiak: eraikuntzen bizigarritasun-baldintzak mantendu eta hobetzeko eta horiek beharrizan berrietara egokitzeko jarduerak egin dira (nabarmentzekoak dira Vitoria-Gasteizko Jauregian Zigor Prozesuko Zerbitzu Komunean egindako erreforma, Donostian Atotxako Jauregian AMEEko Auzitegi Laborategian egindako erreforma, eta Zumarragako Adingabeen Zentroan egindako asfaltatze- eta hobetze-lanak, besteak beste).

*Obras Menores: Las actuaciones se han orientado al mantenimiento y mejora de las condiciones de habitabilidad de las edificaciones, así como a su adaptación a las nuevas necesidades (destacar la reforma del Servicio Común Procesal Penal en el Palacio de Vitoria-Gasteiz, la del Laboratorio Forense del IVML en el Palacio de Atotxa en Donostia-San Sebastián, y el asfaltado y otras mejoras en el Centro de Menores de Zumárraga, entre otros).*

Instalazioen mantentze-lanak: egoitza judizialetan eta AMEEn ohikoak diren mantentze-lanak egin dira, batez ere prebentziokoak eta aurreikuspenekoak.

*Mantenimiento instalaciones: Se han realizado las habituales labores de mantenimiento de las sedes judiciales e I.V.M.L., basadas principalmente en los mantenimientos preventivos y predictivos.*

Segurtasun pasiboa: segurtasun-arloan, zuzkidura teknikoak hobetzen jarraitzen da, nola egoitza judizialetan, hala adingabeen zentroetan. Barroetako (Bilbo) eta Gernikako justizia-jauregietarako eskaner berriak erosi dira, daudenen ordez.

*Seguridad pasiva: Se continúa con la mejora de las dotaciones técnicas en el área de seguridad, tanto en sedes judiciales como en centros de menores. Reseñar la adquisición de nuevos escáneres en sustitución de los existentes para los Palacios de Justicia de Barroeta (en Bilbao) y Gernika.*

Larrialdi eta autobabeseko planak: etengabe eguneratzen dira, eta eraikuntzetan izandako banaketa-aldaketak txertatzen dira.

*Planes de emergencia y autoprotección: Se continúa con su actualización permanente, incorporando los cambios de distribución habidos en las edificaciones.*

## 7. EUSKADIN, EPAILEEKIN, FISKALTZAREKIN ETA IDAZKARI JUDIZIALEKIN KOORDINATZEA.

## *7. COORDINACIÓN CON LA JUDICATURA, LA FISCALÍA Y EL SECRETARIADO JUDICIAL EN EUSKADI.*

Batzorde Mistoak bi bilera egin ditu Fiskaltzarekin.

*Se celebraron 2 reuniones de la Comisión Mixta con la Fiscalía.*

## 8. BULEGO JUDIZIAL ETA FISKAL BERRIA ERATZEA.

## *8. IMPLANTACIÓN DE LA NUEVA OFICINA JUDICIAL Y FISCAL.*

Bulego Judizial Berriaren ezarpena finkatu da Amurrion, Azpeitian, Balmasedan, Bergaran, Durangon, Eibarren, Gernikan, Getxon, Irunen, Tolosan, Gasteizen eta Barakaldon. Baita EAEANeko Gobernu Idazkaritzan, bake-epaitegietan, eta AZetaAMEEn ere.

*Afianzar la implantación de la Nueva Oficina Judicial en Amurrio, Azpeitia, Balmaseda, Bergara, Durango, Eibar, Gernika, Getxo, Irún, Tolosa, Vitoria-Gasteiz y Barakaldo. Asimismo, en la Secretaría de Gobierno del TSJPV, Juzgados de Paz y en el IVMLyCF.*

Bulego Fiskala Fiskaltza Nagusian, probintzia-fiskaltzetan eta Barakaldoko Lurralde Atalean ezartzeko lanak finkatu dira.

*Afianzar la implantación de la Oficina Fiscal en la Fiscalía Superior, Fiscalías Provinciales y en la Sección Territorial de Barakaldo.*

Bulego Judizial Berria Donostian jartzeko azterketa hasi da.

*Inicio del estudio para la implantación de la Nueva Oficina Judicial en Donostia/San Sebastián.*

Vitoria-Gasteizko Prozesu Zerbitzu Komunak aldatzeko proposamena egin da.

Aiarako bake-taldea sortzeko proposamena egin da.

Lanpostuen baldintzak egindako ezarpenetara egokitu dira.

*Propuesta de modificación del Servicio Común Procesal General de Vitoria-Gasteiz.*

*Propuesta de creación de la Agrupación de Paz de Ayala.*

*Adaptar los requisitos de los puestos en las implantaciones realizadas.*

**9. ALDAKETAREN KUDEAKETA.**

• Bulego Judizial Berria izeneko organoak: bilera bat egin dute “Koordinazio eta Hobekuntza Batzordeek” Barakaldoko barruti judizialean; espediente judizialen eskariaren jarraipen zehatza egin da (artxibora sartu eta artxibotik ateratzeko eskariak), eta azterketaren emaitzekin urteko txostena idatzi da.

• Komunikazioa (gardentasuna eta partaidetza): “e-kolabora” inguru lankidea sortu da sharepoint-en, justiziaren profesionalak beren eguneroko laneko arazoak konpondu edo hobetzeko aukeretara hurbilduko dituzten lan-giro partaideak sortzeko; prozesu judizial batean dauden agente profesional guztiei zuzentzen zaie, eta beren lana hobetzeko hainbat alderdi landu nahi dituzten kolektibo profesionalen bidez antolatzen da. Parte hartzeko proposamenak antolaketaren edozein eremuk egin ditzake, bai justizia-administrazioa osatzen duten kolektiborik barnekoenek (ZULUPak, zerbitzu komun orokorrak, exekuzio-zerbitzuak, erregistro zibilak...), bai kanpokoenek (Ertzaintza, abokatuak...): konpondu edo hobeto beharreko gaiak ezagutzaren bidetik lantzea baino ez da behar.

• Kalitatearen kudeaketa: “CNEJ_LANTALDEA” (Estatistika Judizialeko Batzorde Nazionala) sortu da. Bertako kide dira euskarri juridikoko arduradunak, euskarri funtzionaleko arduradunak, informatikariak eta proiektu-arduradunak. Lantaldearen helburua Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Justizia Ministerioak egindako buletin judizialen proposamenak aztertzea da, Estatistika Judizialeko Batzorde Nazionalera igortzeko; era berean, lehen urratsak egin dira lurralde ezberdinetako buletin judizialak igortzeko orduan irizpide bateratuak jarrai daitezen; azkenik, jardunbide onen eskuliburua prestatzeko lanak martxan daude, idazkari judizialek era egokian igor ditzaten buletin judizialak; koordinazio eta komunikazioko lanak egin dira Osasun Sailaren, Osakidetzako Ospitaleen eta Erregistro Zibilen artean, jaiotzak telematikoki inskribatu ahal izateko ospitale-zentroetatik. Hiru jardunalditan parte hartu da, 6 koordinazio-bilera egin dira, eta 3 bideokonferentzia antolatu dira Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiarekin eta gainerako autonomia-erkidegoekin; bilerak egin dira Inforeg aplikazioa instalatuta ez duten bake-epaitegietako arduradunekin (eta, hala badagokio, alkateekin), aplikazioa instalatzeko eta era egokian erabiltzeko arazoak konpontze aldera (Laguardia, Agurain, Iruña Oka, Lasarte-Oria, Oion, Lanestosa, Turtzioz, Artzentales, Arrakundiaga, LezamaH ).

***9. GESTIÓN DEL CAMBIO.***

• *Órganos NOJ: se ha celebrado 1 reunión en el Partido Judicial de Barakaldo de las “Comisiones de Coordinación y Mejora”; seguimiento pormenorizado de la petición de expedientes judiciales (archivo/desarchivo) con informe anual de resultado.*

• *Comunicación (Transparencia y participación): se ha creado el entorno colaborativo "e-kolabora" en sharepoint, para crear entornos de trabajo colaborativo que acerquen los profesionales de la justicia alrededor de oportunidades de mejora o de resolución de problemas de su trabajo cotidiano; se dirige a todos los agentes profesionales integrantes en un proceso judicial y se articula a través de los diferentes colectivos profesionales que quieran trabajar sobre aspectos de mejora en su práctica laboral. Las propuestas de participación pueden venir desde cualquier ámbito de la organización, tanto desde los colectivos considerados más internos que forman la administración de justicia (UPADs, Servicios Comunes Generales, de Ejecución, Registros Civiles…) así como los más externos (Ertzaintza, Abogacía…): sólo se requiere trabajar los temas a resolver o mejorar por la vía que aporta el conocimiento.*

• *Gestión de Calidad: se ha creado el grupo de trabajo “CNEJ_LANTALDEA”(Comisión Nacional de Estadística Judicial), formado por responsables de Soporte Jurídico, Soporte Funcional, informáticos y responsable de proyectos, con el objetivo de analizar las propuestas de boletines judiciales hechas por el CGPJ y el Ministerio de Justicia, y remitirlas al pleno de la CNEJ; de la misma manera, se han dado los primeros pasos para la unificación la emisión de los boletines judiciales de los distintos territorios; por último, se está elaborando un manual de buenas prácticas para la correcta emisión de los boletines judiciales por parte de los Secretarios Judiciales; se han realizado labores de coordinación y comunicación entre el Departamento de Salud, Hospitales de Osakidetza y Registros Civiles, para la implantación de la inscripción telemática de nacimientos desde los Centros Hospitalarios. Se ha participado en 3 jornadas y se han realizado 6 reuniones de coordinación y 3 videoconferencias con la DGRN y demás comunidades autónomas; se han mantenido reuniones con los responsables de los Juzgados de Paz (y alcaldes en su caso) en los que no está instalada la aplicación Inforeg, para intentar solventar los problemas para su instalación y correcto uso (Laguardia, Agurain, Iruña de Oca, Lasarte-Oria, Oion, Lanestosa, Truzioz, Artzentales, Arrakundiaga, Lezama…).*

**10. AUZITEGIKO MEDIKUNTZAKO EUSKAL ERAKUNDEA.**

2 lankidetza-akordio berritu dira: "CESA BHIP", 2016ko otsailaren 9an, eta "Elorrieta-Errekamari ikastetxea", 2016ko urtarrilaren 27an.

3 akordio berri sinatu dira: "Deustuko Unibertsitatea, Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea", 2016ko otsailaren 12an, "Deustuko Unibertsitatea, Gizarte eta Giza Zientziak Fakultatea", 2016ko uztailaren 5ean, "Justizia Ministerioko Ikasketa Juridikoen Zentroa", 2016ko irailaren 14an.

***10. INSTITUTO VASCO DE MEDICINA LEGAL.***

*Renovados 2 Acuerdos de Colaboración: "CPES CESA" el 9 de febrero de 2016 y "Centro Elorrieta-Errekamari" el 27 de enero de 2016.*

*Firmados 3 nuevos acuerdos: "Universidad de Deusto, Facultad de Psicología y Educación" el 12 de febrero de 2016, "Universidad de Deusto, Facultad de Ciencias Sociales y Humanas" de 5 de julio de 2016, "Centro de Estudios Jurídicos del Ministerio de Justicia" de 14 de septiembre de 2016.*

**11. ESPEDIENTEEN ETA PAPEREN GARBIKETA. ARTXIBO HISTORIKO JUDIZIALA ANTOLATZEA HELBURU DUTEN JARDUERAK.**

Urtean zehar, bulego judizialek artxibo-egoeran dauden dokumentazioak entregatu dituzte kasuan kasuko lurralde-artxiboetan.

Maiatzean, konbikzio-piezak suntsitu ziren, prozeduran xede hori aurreikusten zen kasuetan. Gauza bera egin zen preskribatuta zeuden eta hondar-balioa zuten prozeduretako piezekin.

Halaber, maiatzean 2015ean egindako Batzetan nolabaiteko eduki historiko edo soziala zutela-eta aipatu ziren prozeduretako dokumentazioa entregatu da Artxibo Historiko Dokumentalera.

Ondoren, urrian, Garbiketa Batza egin zen organo judizial desberdinek proposatutako dokumentazioarekin, eta Gasteiz, Bilbo, Balmaseda, Durango, Getxo, Donostia eta Tolosako barruti judizialetako nahiz Galdakao, Basauri eta Errenteriako bake-epaitegietako prozedurak garbitzea onartu zen. Horiek suntsitu baino lehen, dokumentazioa Agiri Ondareari eskainiko zaio, balio historiko edo soziala eduki dezakeen balora dezan.

***11. EXPURGO DE EXPEDIENTES Y EFECTOS. ACTUACIONES TENDENTES A LA ORGANIZACIÓN DEL ARCHIVO HISTÓRICO JUDICIAL.***

*A lo largo del año, desde las diferentes oficinas judiciales se han ido realizando las entregas de documentación catalogadas en situación de archivo, a los correspondientes Archivos Territoriales.*

*En el mes de mayo, se procedió a la destrucción de las piezas de convicción cuyo destino en el procedimiento así se establecía, de igual forma las correspondientes a aquellos procedimientos prescritos y que tenían un valor residual.*

*También en el mes de mayo, se han realizado las entregas de documentación al Archivo Histórico Documental de aquellos procedimientos que en las Juntas celebradas en el 2015 se señalaron por entender que tenían un cierto grado de contenido histórico o social.*

*Posteriormente en el mes de octubre se realizó la correspondiente Junta de Expurgo con la documentación propuesta por los diferentes órganos judiciales, aprobándose el expurgo de los procedimientos de los Partidos Judiciales de Vitoria-Gasteiz, Bilbao, Balmaseda, Durango, Getxo, Donostia-San Sebastián y Tolosa, así como los Juzgados de Paz de Galdakao, Basauri y Errenteria. Previamente antes de proceder a su destrucción, la documentación se ofrecerá al Patrimonio Documental, para que valore si los mismos pueden tener un valor histórico o social.*

**12. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN DAUDEN GIZA BALIABIDEAK OPTIMIZATZEA.**

2016. urtean, bilera bat egin dute Justizia Administrazioko zuzendaritzak eta sindikatuen zentralek.

Lanpostu hauek esleitu ziren: zerbitzu-eginkizunetako kudeatzaile arduraduna Arabako Bulego Fiskalean eta Eibarko Zerbitzu Komun Orokorrean eta Exekuzio Zerbitzuan.

Justiziako langileen atarian, 121 komunikazio egin dira.

Berariazko lehiaketa. Herri Administrazio eta Justiziako sailburuak 2016ko urtarrilaren 25ean emandako Agindua,

***12. OPTIMIZACIÓN DE LOS RECURSOS HUMANOS EXISTENTES EN LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA.***

*Durante el año 2016 se ha mantenido 1 reunión entre la dirección de la Administración de Justicia y las Centrales Sindicales.*

*Se adjudicaron los puestos de Gestor Responsable en comisión de servicios en la Oficina Fiscal de Álava y Servicio Común General y Ejecución de Eibar.*

*En el portal del personal de Justicia se han realizado 121 comunicaciones.*

*Concurso Específico. Por Orden del Consejero de Administración Pública y Justicia de 25 de enero de 2016*

Auzitegi-Medikuntzako Euskal Erakundean auzitegi-patologian adituak diren auzitegi-medikuen lanpostuak betetzeko. Hiru plaza deitu dira, eta 2 lanpostu eman dira.

*para la provisión de puestos de médico/a forense experto/a en patología forense en el Instituto Vasco de Medicina Legal. Se han convocado 3 plazas, adjudicándose 2 puestos de trabajo.*

Herri Administrazio eta Justiziako sailburuak 2016ko martxoaren 11n emandako Agindua, kudeatzaile, izapidetzaile eta laguntzaile lanpostuak betetzeko. 198 plaza huts eta lekualdaketen zioz hutsik geratutako 115 deitu dira. Hamahiru esleipen egin dira.

*Por Orden del Consejero de Administración Pública y Justicia de 11 de marzo de 2016 para la provisión de puestos de Gestor, Tramitador y Auxilio. Se han convocado 198 vacantes, 115 resultas. Adjudicaciones 13.*

Lekualdatze-lehiaketa: Justizia Administrazioaren Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzeko eta Laguntza Judizialeko Kidegoen lekualdatze-lehiaketa ebatzi da. 2016-11-07ko EHAA, 210. zk. Berrogeita lau plaza esleitu dira, eta 39 gelditu dira hutsik.

*Concurso de Traslado: Se ha resuelto el concurso de traslados de los Cuerpos de Gestión Procesal y Administrativa, Tramitación Procesal y Administrativa y Auxilio Judicial de la Administración de Justicia. BOPV n. 210 (07-11-2016) Se han adjudicado 44 plazas y 39 quedan desiertas.*

Auzitegi-medikuen kidegoko lekualdatze-lehiaketa ebatzi da. EHAA, 2016-11-28koa, 225 zk. Justizia Administrazioko zuzendariaren 2016ko martxoaren 1eko ebazpenaren bidez, lan-poltsetako kide guztien datuak ireki eta eguneratu dira, eta, amaitzeko, behin betiko zerrenda argitaratu da, Justizia Administrazioko zuzendariaren 2016ko irailaren 22ko ebazpenaren bidez.

*Se ha resuelto el concurso de traslados del Cuerpo de Médicos Forenses. BOPV n. 225 (28.11.2016) Por Resolución de 1 de marzo de 2016, del Director de la Administración de Justicia, se procede a la apertura y actualización de datos de todos los integrantes de las bolsas de Trabajo, finalizando con la publicación de la relación definitiva mediante Resolución de 22 de septiembre de 2016, del Director de la Administración de Justicia.*

Honako espediente hauek izapidetu dira: a) lizentzien eta baimenen eskaerak, 36.614 funtzionarioentzat eta 2.646 langileentzat.

*Se han tramitado los siguientes expedientes: a) peticiones de licencias y permisos, 36.614 para funcionarios y 2.646 para laborales.*

Zerbitzu-eginkizunen modalitatean, 7 deialdi egin dira, eta 17 plaza eskaini dira.

*Se han realizado 7 convocatorias en comisiones de servicio ofertándose 17 plazas.*

**13. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA.**

***13. FORMACIÓN DEL PERSONAL AL SERVICIO DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA.***

2016rako etengabeko prestakuntza-programaren baitan, Bulego Judizial berrian jarduteko prestakuntza espezifikoa eman da. 22 ikastaro egin dira guztira; 230 ikastordu izan dira, eta 523 ikaslek hartu dute parte. Programa honetan ikusi da online modalitateko prestakuntza sendotu egin dela; izan ere, programatutako ikastaroen ia erdia online egin da, eta prestakuntza jaso duten ikasleen bi herenek ere modalitate hori aukeratu dute.

*El programa de formación continuada 2016, incluida la formación específica de la nueva Oficina Judicial, se ha llevado a cabo con un total de 22 cursos que han supuesto 230 horas de formación para un total de 523 alumnos. Dentro de este programa se consolida la formación en modalidad online con casi la mitad de los cursos programados y dos tercios de los alumnos formados.*

Lanpostura egokitzeko prestakuntza pertsonalizatuari dagokionez, 38 tutoretza eman dira; 740 ikastordu eta 41 ikasle.

*La formación personalizada de adaptación al puesto de trabajo ha supuesto la impartición de 38 tutorías con 740 horas de formación para 41 alumnos.*

**14. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZUPEKO LANGILEEN LAN OSASUNA HOBETZEKO JARDUERAK.**

***14. ACTUACIONES ORIENTADAS A LA MEJORA DE LA SALUD LABORAL DEL PERSONAL AL SERVICIO DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA.***

Arriskuen ebaluazioak: AMEEko Auzitegi Laborategiko Zerbitzuaren arriskuak ebaluatu dira Bilbon; Bilboko Instrukzioko Epaitegietako arrisku psikosozialen ebaluazioa amaitu da.

*Evaluaciones de riesgos: se ha realizado la evaluación de riesgos del Servicio de Laboratorio Forense del IVML en Bilbao; se ha finalizado la evaluación de riesgos psicosociales de los Juzgados de Instrucción de Bilbao.*

Zuzenketa-ekintzak: Bilboko Anatomia Patologikoaren Laborategia kabinatan banatzeko prozesua amaitu da; muntatzaile bat kontratatu da Bilboko Anatomia Patologikoaren Laborategirako; larrialdietarako begi-garbigailua eta dutxa kontratatu dira Bilboko Anatomia

*Acciones correctoras: se ha finalizado la “cabinización” del Laboratorio de Anatomía Patológica en Bilbao; se ha contratado un montador para el Laboratorio de Anatomía Patológica en Bilbao; se ha contratado una ducha y lavaojos de emergencia para el Laboratorio de Anatomía*

Patologikoaren Laborategirako; Donostiako Anatomia Patologikoaren Laborategia kabinatan banatzeko prozesua hasi da; lanketa-mahai bat kontratatu da Donostiako Anatomia Patologikoaren Laborategirako; tindatzaile bat kontratatu da Donostiako Anatomia Patologikoaren Laborategirako.

*Patológica en Bilbao; se ha iniciado la "cabinización" del laboratorio de Anatomía Patológica en Donostia; se ha contratado una mesa de tallado para el laboratorio Anatomía Patológica en Donostia; se ha contratado un teñidor para el laboratorio Anatomía Patológica en Donostia.*

Neurketak: formaldehidoaren eta lurrun organikoen neurketak eta analitikak egin dira AMEEn Bilbon, Donostian eta Gasteizen; erregai-gasen eta partikulen neurketak eta analitikak egin dira AMEEn, Bilbon; X izpien esposizioa neurtu zaie (hileroko dosimetria) AMEEko 25 langileri Bilbon, Donostian eta Gasteizen; hainbat lanpostutan giro, zarata, argi, aire-bide eta bestelako aldagaiak neurtu dira.

*Mediciones: se han realizado mediciones y analíticas de formaldehido y vapores orgánicos en el IVML en Bilbao, Donostia y Vitoria-Gasteiz; se han realizado mediciones y analíticas de partículas y gases de combustión en el IVML en Bilbao; se ha medido la exposición a rayos X (dosimetría mensual) de 25 trabajadores del IVML en Bilbao, Donostia y Vitoria-Gasteiz; se han realizado mediciones de las condiciones ambientales, ruido, iluminación, caudales de aire, etc. en diferentes puestos de trabajo;*

Arrisku-jakinarazpenak: langileek eta prebentzio-ordezkariek bidalitako 50 arrisku-jakinarazpen ingururi eman zaie erantzuna; lantokietan gertatutako 6 gorabehera erregistratu eta ikertu dira.

*Comunicados de riesgos: se han atendido alrededor de 50 comunicados de riesgos enviados por trabajadores y Delegados de Prevención; se han registrado e investigado 6 incidentes en los centros de trabajo.*

Lan-istripuak eta lan-gatazkak: 65 istripu erregistratu eta ikertu dira, eta horietako 51 jo dira lan-istriputzat; pertsonen arteko gatazken 8 kasutan esku hartu da.

*Accidentes de trabajo y conflictos laborales: se han registrado e investigado 65 accidentes, de los cuales 51 se han calificado como accidentes de trabajo; se han atendido 8 casos de conflictos entre personas.*

Lanpostuen egokitzapena eta lekualdaketa: lanpostuak egokitzeko 16 kasuri eman zaie erantzuna; osasun-arazoen ondorioz lanpostuz aldatzeko 5 kasuri eman zaie erantzuna.

*Adaptación y traslado de puestos: se han atendido 16 casos de adaptación de puesto; se han atendido 5 casos de traslado de puesto por motivos de salud.*

Osasunaren zaintza: hiru urtez behin egin beharreko azterketa medikoak gauzatu dira (borondatezkoak), Justizia Administrazioko langile guztiei zuzenduta; balorazio medikoak egin dira istripuak, lanpostu-egokitzapenak, lanpostu-aldaketak, gatazkak eta abar egon direnean.

*Vigilancia de la salud: se han realizado reconocimientos médicos trienales voluntarios, dirigidos a todo el personal de la Administración de Justicia; se han realizado valoraciones médicas en casos de accidente, adaptación y traslado de puestos, conflictos, etc.*

Larrialdiak: 22 ebakuazio-aulki kontratatu dira larrialdietarako, 16 justizia-jauregietarako; Vitoria-Gasteizko Justizia Jauregiko Larrialdi Planarekin jarraitu da.

*Emergencias: se han contratado 22 sillas de evacuación, para emergencias, para los 16 Palacios de Justicia; se ha continuado con el Plan de Emergencias del Palacio de Justicia de Vitoria-Gasteiz.*

Prestakuntza: desfibriladoreei buruzko 4 ikastaro egin dira Vitoria-Gasteizko Justizia Jauregian, eta desfibriladoreei buruzko ikastaro 1 Barakaldoko Justizia Jauregian.

*Formación: se han realizado 4 cursos sobre desfibriladores en el Palacio de Justicia de Vitoria-Gasteiz y 1 curso sobre desfibriladores en el Palacio de Justicia de Barakaldo.*

Informazioa eta sentsibilizazioa: justizia-jauregien eta AMEEren sarreretan jartzeko hainbat informazio-seinale egin dira; Lan Arriskuen Prebentziorako Eskuliburua eguneratu da; informazioa argitaratu da langileen atarian (Langileen ataria) eta Justiziako intraneten.

*Información y sensibilización: se han realizado varias señales informativas para colocar en las entradas de los Palacios de Justicia y en el IVML; se ha actualizado el Manual de Prevención de Riesgos Laborales; se ha publicado información en el Portal del Empleado y en la intranet de Justicia.*

Prozedurak eta jarraibideak: langileen artean lan-arloan sortzen diren gatazketan jarduteko protokoloa berrikusi eta eguneratu da.

*Procedimientos e instrucciones: se ha iniciado la revisión y actualización del Protocolo de Actuación en caso de Conflicto Interpersonal en el Ámbito Laboral.*

Jardueren koordinazioa: Administrazio Orokorreko Prebentzio Zerbitzuarekin lankidetzan jardun da; harremanak eduki dira Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Prebentzio Zerbitzuarekin eta Justizia Ministerioko Prebentzio Zerbitzuarekin; bilera bat egin da Ertzaintzako segurtasun-teknikariarekin eta Justizia Administrazioko segurtasuneko arduradunekin; hiru enpresak bidali dute jardueren koordinazioari buruzko dokumentazioa.

*Coordinación de actividades: se ha colaborado con el Servicio de Prevención de la Administración General; se han mantenido contactos con el Servicio de Prevención del Consejo General del Poder Judicial y con el Servicio de Prevención del Ministerio de Justicia; se ha celebrado una reunión con el Técnico de Seguridad de la Ertzaintza y con los Responsables de Seguridad de la Administración de Justicia; se ha recibido documentación de tres empresas sobre coordinación de actividades.*

Ekipamenduak eta tresnak: Prebentzio Zerbitzuak erabilitako neurketa-tresnak kalibratu dira; formaldehidoa neurtzeko sei gailu finko kontratatu dira AMEEko Autopsia Saletarako eta Anatomia Patologikoaren Laborategietarako Bilbon, Donostian eta Gasteizen; bost elektrodo-sorta eta bateria kontratatu eta ordeztu dira Bilboko (Barroeta), Bilboko (Buenos Aires), Barakaldoko, Donostiako eta Gasteizko justizia-jauregietako desfibriladoreetarako.

*Equipos e instrumentos: se han calibrado los instrumentos de medida utilizados por el Servicio de Prevención; se han contratado seis medidores fijos de formaldehído para los Laboratorios de Anatomía Patológica y Salas de Autopsias del IVML en Bilbao, Donostia y Vitoria-Gasteiz; se han contratado y sustituido cinco juegos de electrodos y baterías para los desfibriladores de los Palacios de Justicia de Bilbao (Barroeta), Bilbao (Buenos Aires), Barakaldo, Donostia y Vitoria-Gasteiz.*

Segurtasun eta Osasun Batzordeak: urtean zehar ohiko bi bilera eta ezohiko bi bilera egin dira.

*Comités de Seguridad y Salud: a lo largo del año, se han celebrado dos Comités ordinarios y 2 Comités extraordinarios.*

Prebentzio Zerbitzuko langileen prestakuntza eta birziklapena: OSALANek lan-arriskuen prebentzioarekin lotuta antolatu dituen 6 jardunalditan parte hartu da.

*Formación y reciclaje del personal del servicio de Prevención de Prevención: se ha asistido a 6 jornadas relacionadas con la prevención de riesgos laborales, organizadas por OSALAN.*

Kudeaketa, administrazioa eta kontratazioa: 2 kontratu ireki (bat osasuna zaintzekoa, 2017-2019koa), 9 kontratu txiki eta izaera baxuagoko hainbat kontratazio kudeatu eta izapidetu dira; Prebentzio Zerbitzuaren memoria, aurrekontua eta urteko plangintza egin dira; Lan Ikuskaritzaren eta Osalanen hitzorduak eta eskariak erantzun dira; Prebentzio Zerbitzuaren datu-basea eguneratu da.

*Gestión, administración, contratación: se han gestionado y tramitado 2 contratos abiertos (uno de ellos el de vigilancia de la salud 2017-2019), 9 contratos menores y varias contrataciones de menor entidad; se ha realizado la memoria, el presupuesto y la planificación anual del Servicio de Prevención; se han atendido las citas y requerimientos de la Inspección de Trabajo y de Osalan; se ha actualizado la base de datos del Servicio de Prevención.*

| **PROGRAMA** | ***PROGRAMA*** |
|---|---|
| 1412 JUSTIZIA | *1412 JUSTICIA* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 02 HERRI ADMINISTRAZIOA ETA JUSTIZIA | *02 ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y JUSTICIA* |
| JUSTIZIA ZUZENDARIA | *DIRECTOR DE JUSTICIA* |

## HELBURUA

1. ADIN TXIKIKOEN ALORREAN NEURRI JUDIZIALAK EGIKARITZEKO TRESNEN EUSPENA ETA HOBEKUNTZA, HORIEK BEREIZTEN DITUEN IZAERA MISTO ZEHATZAILEA ETA HEZITZAILEA KONTUAN IZANIK, TRATAMENDU INDIBIDUALIZATUEKIN ETA NAHIKOA KALITATEKO ESTANDARREKIN

2. ORGANO JUDIZIALEI LAGUNTZEA HELDUEN JUSTIZIA PENALAREN ALORREAN, BIKTIMEN ESKUBIDEAK BEHAR BEZALA BERMATZEKO ETA ASKATASUN-GABETZEAZ BESTELAKO NEURRIEN APLIKAZIO MAILA HANDITU AHAL IZATEKO

3. DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOARI BURUZKO LEGEA BETETZEA BERMATZEA, BEREZIKI ETXEKO, GENEROKO INDARKERIEN ETA/EDO SEXU-ERASOEN TXANDAN ETA ESPETXEETAN DAUDENENTZAKO LAGUNTZA JURIDIKOKO TXANDAN

4. DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOKO ESPEDIENTEAK DITUZTEN LETRATUEK OFIZIOZKO TXANDETAN SARTU ETA EGOTEKO PRESTAKUNTZA ETA ESPEZIALIZAZIOA BERMATZEA

5. LEGE SOZIOLOGIAKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEA

6. DERIBAZIO JUDIZIALAREN BIDEZKO FAMILIA ELKARGUNEAK

## *OBJETIVO*

*1. SOSTENIMIENTO Y MEJORA DE LOS INSTRUMENTOS DE EJECUCIÓN DE LAS MEDIDAS JUDICIALES EN MATERIA DE MENORES, ATENDIENDO AL CARÁCTER MIXTO SANCIONADOR Y EDUCATIVO QUE LAS CARACTERIZA, CON TRATAMIENTOS INDIVIDUALIZADOS Y ESTANDARES DE CALIDAD BASTANTE*

*2. ASISTENCIA A LOS ÓRGANOS JUDICIALES EN EL ÁMBITO DE LA JUSTICIA PENAL DE ADULTOS, PARA GARANTIZAR ADECUADAMENTE LOS DERECHOS DE LAS VÍCTIMAS Y POSIBILITAR EL INCREMENTO DE LA APLICACIÓN DE MEDIDAS ALTERNATIVAS A LA PRIVACIÓN DE LIBERTAD*

*3. GARANTIZAR LA APLICACIÓN DE LA LEY DE ASISTENCIA JURÍDICA GRATUITA, CON ESPECIAL ATENCIÓN AL TURNO DE VIOLENCIA DOMÉSTICA, DE GÉNERO Y/O AGRESIONES SEXUALES ASÍ COMO AL TURNO DE ASISTENCIA LEGAL PENITENCIARIA*

*4. ASEGURAR LA FORMACIÓN Y ESPECIALIZACIÓN DE LAS LETRADAS Y LETRADOS DE LOS TURNOS DE OFICIO ASIGNADOS A LOS EXPEDIENTES DE ASISTENCIA JURÍDICA GRATUITA*

*5. INSTITUTO INTERNACIONAL DE SOCIOLOGÍA JURÍDICA*

*6. PUNTOS DE ENCUENTRO FAMILIAR POR DERIVACIÓN JUDICIAL*

## BETETZE MAILA

**1. ADIN TXIKIKOEN ALORREAN NEURRI JUDIZIALAK EGIKARITZEKO TRESNEN EUSPENA ETA HOBEKUNTZA, HORIEK BEREIZTEN DITUEN IZAERA MISTO ZEHATZAILEA ETA HEZITZAILEA KONTUAN IZANIK, TRATAMENDU INDIBIDUALIZATUEKIN ETA NAHIKOA KALITATEKO ESTANDARREKIN.**

2016an, gazte-justiziako heziketa-zentroen sareak, eguneko zentroek,ingurune irekiko zerbitzuek eta gainerako programek ahalbidetu dute Adingabeen Epaitegiek Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren adin

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

***1. SOSTENIMIENTO Y MEJORA DE LOS INSTRUMENTOS DE EJECUCIÓN DE LAS MEDIDAS JUDICIALES EN MATERIA DE MENORES, ATENDIENDO AL CARÁCTER MIXTO SANCIONADOR Y EDUCATIVO QUE LAS CARACTERIZA, CON TRATAMIENTOS INDIVIDUALIZADOS Y ESTANDARES DE CALIDAD BASTANTE.***

*A lo largo del año 2016, la red de centros educativos de justicia juvenil, los centros de día, los servicios de medio abierto y el resto de los programas han posibilitado la ejecución de las medidas firmes y cautelares impuestas*

txikikoei ezarritako neurri finkoak eta kautelazkoak betearaztea. Era berean, jatorria beste urte batzuetan duten neurriak betearazten jarraitu da 2016an. 794 neurri berri egon dira. Gazte-justiziako heziketa-zentroen sareak 104 leku jarri ditu guztira, eta eguneko zentroek 48. Ingurune irekiko taldeetan, 26 hezitzaile aritu dira lanean modu zuzenean.

*por los Juzgados de Menores a personas menores de edad residentes en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Así mismo, en este periodo se ha continuado con la ejecución de medias provenientes de otros años. El número de medidas nuevas ha sido de 794. La red de centros educativos de Justicia Juvenil ha dispuesto de un total de 104 plazas, el número de plazas en centros de día ha sido de 48 y en los equipos de medio abierto han trabajado, directamente, 26 educadores y educadoras.*

**2. ORGANO JUDIZIALEI LAGUNTZEA HELDUEN JUSTIZIA PENALAREN ALORREAN, BIKTIMEN ESKUBIDEAK BEHAR BEZALA BERMATZEKO ETA ASKATASUN-GABETZEAZ BESTELAKO NEURRIEN APLIKAZIO MAILA HANDITU AHAL IZATEKO.**

***2. ASISTENCIA A LOS ÓRGANOS JUDICIALES EN EL ÁMBITO DE LA JUSTICIA PENAL DE ADULTOS, PARA GARANTIZAR ADECUADAMENTE LOS DERECHOS DE LAS VÍCTIMAS Y POSIBILITAR EL INCREMENTO DE LA APLICACIÓN DE MEDIDAS ALTERNATIVAS A LA PRIVACIÓN DE LIBERTAD.***

2016an Biktimari Laguntzeko Zerbitzua eman dugu, IRSE elkartearekin sinatutako kontratuaren bidez; Zigorrak Kudeatzeko Euskal Zerbitzua, IRSE elkartearekin sinatutako kontraturen bidez eman da; eta Bitartekaritza Judizialeko Zerbitzua (zigor-arloko jurisdikzioan eta beren kargura adin txikiko seme-alabak dituzten familien kasuetan) ADOSTEN erakundearekin sinatutako hitzarmenaren bidez. Horiek guztiak Justizia Administrazioarekiko Lankidetza Zerbitzuen barruan daude, eta lurralde historikoetako hiriburuetako epaitegietan eta Barakaldon dute egoitza.

*En 2016 se ha prestado el Servicio de Asistencia a la Víctima mediante contrato con el IRSE; el Servicio Vasco de Gestión de Penas mediante contrato suscrito con el IRSE; y el Servicio de Mediación Intrajudicial de Euskadi (jurisdicción penal y casos de familia con hijos menores a cargo) mediante convenio con ADOSTEN y todos ellos englobados en los Servicios de Cooperación con la Administración de Justicia y con sede en las dependencias judiciales de las capitales de los tres Territorios Históricos y Barakaldo.*

2016an Hipoteken Bitartekaritza Zerbitzuaren finantzazioari eutsi zaio, Jarduera Profesionaleko Txanda osatzen duten erakundeekin 2012an sinatutako Hitzarmenaren bidez; guztira, 42 jarduera gauzatu dira.

*Durante el año 2016 se ha continuado con la financiación del Servicio de Mediación Hipotecaria mediante Convenio del año 2012 con las entidades que integran el Turno de Actuación Profesional con un total de 42 actuaciones.*

Diru-laguntzen deialdi berria egin dugu 2016. urtean. Horren bitartez, preso dauden pertsonak laneratzeko eta gizarteratzeko programetara bideratuta, espetxeez kanpoko baliabideetarako 500.000 € eman ditugu. Aurreko urteko baino 100.000 € gehiago zigortutako pertsonentzako gizarteratzeko programak ere laguntzeko asmoz. Aurkeztutako 43 proiektuak suertatu dira diru-laguntzen onuradun.

*En el 2016, se ha realizado una nueva convocatoria de subvenciones destinada a programas de inclusión socio-laboral de personas presas para recursos externos a prisión con una consignación de 500.000 €, 100.000 € más que la convocatoria anterior correspondiente a financiar también proyectos de reinserción para personas penadas. Han sido beneficiarios los 43 proyectos.*

**3. DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOARI BURUZKO LEGEA BETETZEA BERMATZEA, BEREZIKI ETXEKO, GENEROKO INDARKERIEN ETA/EDO SEXU-ERASOEN TXANDAN ETA ESPETXEETAN DAUDENENTZAKO LAGUNTZA JURIDIKOKO TXANDAN.**

***3. GARANTIZAR LA APLICACIÓN DE LA LEY DE ASISTENCIA JURÍDICA GRATUITA, CON ESPECIAL ATENCIÓN AL TURNO DE VIOLENCIA DOMÉSTICA, DE GÉNERO Y/O AGRESIONES SEXUALES ASÍ COMO AL TURNO DE ASISTENCIA LEGAL PENITENCIARIA.***

2016an, Euskal Autonomia Erkidegoko Doako Laguntza Juridikorako Batzordeek, lurraldeko bana, 66 bilera egin dituzte guztira; 20 Araban, 22 Bizkaian eta 24 Gipuzkoan.

*Durante 2016, las Comisiones de Asistencia Jurídica Gratuita del País Vasco, una por territorio, han celebrado un total de 66 reuniones, 20 en Alava, 22 en Bizkaia y 24 en Gipuzkoa.*

2016an, doako laguntza juridikoa eskatzeko 29.285 espediente izapidetu dira (2015ean baino 3.035 espediente gehiago). Aldeko irizpena eman da kasuen %74an (21.745). kontrakoa kasuen %16an.eta 452 espediente artxibatu dira (%1,5). Gainerako kasuak, batez ere, doako justiziaren zuzeneko onuradunei (hala nola, genero-indarkeriaren biktimei) eta beste onuradun batzuei dagozkie, doako laguntza juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/996 Legearen 2.artikuluan identifikatutakoak horiek.

*El número de expedientes de solicitud de asistencia jurídica gratuita tramitados durante 2016 ha sido de 29.285 (3.035 expedientes más que en 2015) recayendo dictamen favorable en el 74% (21.745); 4.730 desfavorable (16%); y archivándose 452 expedientes (1,5%). El resto de casos corresponden principalmente a beneficiarios directos de justicia gratuita (como las víctimas de violencia de género y otros beneficiarios, identificados en el artículo 2 de la Ley 1/1996, de 10 de enero, se asistencia jurídica gratuita.*

Hiru hiletik behi, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Abokatuen eta Prokuradoreen Elkargoaren aldeko abonuak izapidetu dira; bai atxilotuei emandako laguntzengatik (guardiako txanda), bai, doako justizia tartean, ofiziozko txandetatik eratorritako jarduerengatik. Bestetik, espetxeratuei lege-laguntza emateko txandari dagozkion abonuak izapidetu dira Abokatuen Elkargoaren alde. Sei hiletik behin, etxeko indarkeriaren txandari dagozkion jarduerak eta funtzionamendu-gastuak abonatu dira.

*Trimestralmente se han tramitado, por una parte, los abonos, tanto de las asistencias a detenidos (turno de guardia) como de las actuaciones derivadas del turno de oficio con justicia gratuita concedida, a favor de los Colegios de Abogados y Procuradores de la Comunidad Autónoma; además de los abonos correspondientes al turno de asistencia legal penitenciaria a los Colegios de Abogados; y semestralmente, las actuaciones correspondientes al turno de violencia doméstica, así como los gastos de funcionamiento.*

Lurralde bakoitzean, etxeko indarkeriaren, genero-indarkeriaren edota sexu-erasoen txandara sartzeko edo bertan egoten jarraitzeko ikastaro deitu da. Araban, 2 jardunaldi egin ziren, eta 316 elkargokidek hartu zuten parte; Bizkaian, sartzeko ikastaro bat egin zen, eta 166 pertsona bertaratu ziren; eta, Gipuzkoan, prestakuntza-tailer bat egin zen, 68 elkargokide bertaratu zirelarik.

*Se han convocado y realizado en cada Territorio el curso de acceso y/o permanencia en el turno de Violencia de Género, Doméstica y/o Agresiones Sexuales. En Álava hubo 2 jornadas en las que participaron 316 colegiadas y colegiados; en Bizkaia, un curso de acceso con 166 asistentes; y en Gipuzkoa un taller de formación, con 68 personas colegiadas asistentes.*

## 4. DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOKO ESPEDIENTEAK DITUZTEN LETRATUEK OFIZIOZKO TXANDETAN SARTU ETA EGOTEKO PRESTAKUNTZA ETA ESPEZIALIZAZIOA BERMATZEA.

## *4. ASEGURAR LA FORMACIÓN Y ESPECIALIZACIÓN DE LAS LETRADAS Y LETRADOS DE LOS TURNOS DE OFICIO ASIGNADOS A LOS EXPEDIENTES DE ASISTENCIA JURÍDICA GRATUITA.*

Legelarien Euskal Kontseiluak aurkeztu zuen 2016ko Prestakuntza eta Espezializazio Plan, eta 33 prestakuntza-jardueraren multzoa (jardunaldia, ikastaroak, tailerrak hitzaldiak? ) aurreikusi zen bertan, 78.150 eurotan balioetsitako kostuarekin.

*El Plan Anual de Formación y Especialización 2016, presentado por el Consejo Vasco de la Abogacía preveía un conjunto de 33 actividades formativas (jornadas, cursos, talleres, charlas…), con un coste estimado de 78.150 €*

2016. ekialdia itxitakoan, Arabako, Bizkiko eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoek aurkeztu dituzten justifikazio-memorietan jaso da 42 prestakuntza-jarduera egin direla doako laguntza juridikoaren esparruko txandetan zerbitzu ematen duten elkargokideen prestakuntza-plana egikaritzean, 52.352,57 euroko kostuarekin. Baterako zenbateko horretan, %75etik gora dagokio esleitutako diru-laguntzari.

*Al cierre del ejercicio 2016, las Memorias justificativas aportadas por los Colegios de Abogados de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa recogen que la ejecución de dicho Plan formativo de sus personas colegiadas que prestan servicios en los turnos de asistencia jurídica gratuita, se ha cerrado con 42 actividades formativas, con un coste ejecutado de 52.352,57 €. De este importe conjunto, la subvención concedida representa algo más del 75%.*

Lurraldeka, Arabako Abokatuen Elkargoak 8 prestakuntza-jarduera egin ditu (9 aurreikusi ziren), eta 800 elkargokidek baino gehiagok hartu dute parte; Bizkaikok 12 egin ditu (14 aurreikusi ziren), eta 2.219 pertsona inskribatu ziren; eta Gipuzkoakoak 22 egin ditu (aurreikusitako 10ak baino askoz ere gehiago, baina 16 prestakuntza-hitzaldiak izan dira, profesionalentzako/JustiziaSip-eko informazio-zerbitzuari buruzkoak), eta 1.048 elkargokide bertaratu dira.

*Por territorios, el Colegio de Abogados de Alava ha realizado 8 actividades formativas (de las 9 previstas), con la participación de más de 800 personas colegiadas; el de Bizkaia 12 (de las 14 previstas)y 2.219 personas inscritas; y el de Gipuzkoa, 22 (muy superior a las 10 previstas, si bien 16 fueron charlas formativas sobre el Servicio de Información a Profesionales/JustiziaSip) y 1.048 alumnas y alumnos colegiados asistentes.*

Honako gai eta eremu hauek jorratu dira programa horietan: zigor-arloko justizia, arlo zibileko justizia, gizarte-justizia, atzerritarrak, indarkeria, adingabeak, administrazio-zuzenbidea, deontologia profesional, ezarpen informatiboak, (hala nola, JustiziaSip). Bestetik, oinarrizko ikastaroak, sartzeko edota bertan geratzeko ikastaroak, tailer praktikoak eta abar izan dira aipatu programak. Aurrekoaren arabera, batzuetara joatea hautazkoa izan da, eta nahitaez joan behar izan dira beste batzuetara.

*Las materias tratadas y los programas abordan los ámbitos de justicia penal, civil, social, extranjería, violencia, menores, derecho administrativo, deontología profesional, aplicativos informativos, como JusticiaSip, etc.; y se estructuran bajo la forma de cursos básicos, cursos de acceso y/o de permanencia, talleres prácticos, etc. Según lo anterior, algunos son de asistencia recomendada y otros, obligatoria.*

## 5. LEGE SOZIOLOGIAKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEA.

## *5. INSTITUTO INTERNACIONAL DE SOCIOLOGÍA JURÍDICA.*

Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeari emandako diru-laguntzak bere funtzionamendua finantzatzeko erabili

*Las subvenciones concedidas al Instituto Internacional de Sociología Jurídica de Oñati se han destinado a financiar*

dira, honela, hauek dira egindako jarduerak: Master´s Programme egin da, 20 mintegi eta bilera berri, 45 Visiting Scholars eta 5 argitalpen berri.

*su funcionamiento, permitiendo la realización del Master's Programme, 20 seminarios y reuniones, 45 Visiting Scholars y 5 nuevas publicaciones.*

**6. DERIBAZIO JUDIZIALAREN BIDEZKO FAMILIA ELKARGUNEAK.**

***6. PUNTOS DE ENCUENTRO FAMILIAR POR DERIVACIÓN JUDICIAL.***

Epailak aginduta familiak elkartzeko guneen kudeaketa-aginduei eutsi zaie Portugaleten eta Barakaldon.

*Se han mantenido las encomiendas de gestión de los puntos de encuentro familiar por derivación judicial de Portugalete y Barakaldo.*

Harremanak abiarazi dira Tolosako Udalarekin eta Durangaldeako, Busturialdeako eta Lea-Artibaiko Mankomunitateekin, judizialki ezarrita, ingurune horretako familiek bisitak egiteko lokal berriak eduki ditzaten.

*Se han iniciado contactos con el Ayuntamiento de Tolosa y las Mancomunidades de Durango-aldea, Busturia-aldea y Lea-Artibai para disponer de nuevos locales para realizar las visitas, judicialmente establecidas, de familias de su entorno.*

Justizia zuzendaritzak Bilboko, Donostiako eta Gasteizko familiak elkartzeko guneak kudeatzen jarraitu du.

*Desde la dirección de Justicia se ha continuado gestionando los PEFs de Bilbao, San Sebastián y Vitoria.*

Bilboko familiak elkartzeko guneen lokal berrietako obrak egin dira.

*Se han realizado las obras de los nuevos locales del PEF de Bilbao.*

| PROGRAMA | *PROGRAMA* |
|---|---|
| 4712 ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN HIZKUNTZA NORMALKUNTZA | *4712 NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA DE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 02 HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA | *02 ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y JUSTICIA* |
| FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZENDARIA | *DIRECTOR DE FUNCIÓN PÚBLICA* |

## HELBURUA

1. HERRI-ADMINISTRAZIOAREN HIZKUNTZA-NORMALKUNTZA

## *OBJETIVO*

*1. NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA DE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA*

## BETETZE MAILA

### 1. HERRI-ADMINISTRAZIOAREN HIZKUNTZA-NORMALKUNTZA

Herri Ardularitzaren Euskal Erakunde autonomoak bere programan adierazitako helburu berberak ditu programa honek.

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

### *1. NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA DE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA*

*Tanto los objetivos como el grado de cumplimiento de este programa son los señalados en la del Organismo Autónomo Administrativo Instituto Vasco de la Administración Pública.*